TOPAKETAK

LYCEUM

Lyceum klubaren xedea zen "**emakumeen interes** moralak eta materialak **defendatzea**, horretarako onartuz, bideratuz eta garatuz emakumeen onurarako diren ekimen eta jarduera ekonomiko, ongintzazko, artistiko, zientifiko eta literario oro".

Klubeko Literatura Atalak hitzaldiak eta errezitaldiak antolatzen zituen, eta aholkuak ematen zizkien bidea urratu nahi zuten emakume idazleei.
Atal horretako kideak izan ziren lehenak **emakume askoren lanak aldarrikatzen**, garrantzi handikoak izan arren **ez baitzuten aintzatespenik izan historian zehar**.

Lyceum klubak isekak jaso eta mesfidantza eragin zuen.

- Bazkideez esaten zuten «**mari-maisuak**», «**txolinak**» eta «**arriskutsuak**» zirela, eta klubari berari «**el club de las maridas**» esaten zioten.
- Jacinto Benaventek uko egin zion klubean hitzaldi bat emateari, esaldi ospetsu baten bidez: «**Ezin dut hitzaldi bat eman ero-eroan**»

Hala ere, **beste egile batzuek babesa eman zieten, hala nola Lorcak**, bertan egin baitzuen *Romancero gitano* lanaren lehen irakurketa publikoetako bat.

Ernestina de Champourcini egindako omenaldia Lyceum Club Femeninoan (1936).



*"Ostiralean edo larunbatean «emakumezkoen poesia-txapelketa» izanen da Lyceum klubean. Hartan ariko dira **Santa Teresa, sor Juana Inés de la Cruz, Gertrudis Avellaneda, Carolina Coronado**; finean, aitzindari guztiak, eta gero... gu; hau da, **Concha Méndez Cuesta, Rosa Chacel, Josefina de la Torre, Isabel Buendía, Pilar Valderrama, zu eta ni**".*

(Gutun-liburua, 1928-05-09)